

ZIBERSEGURTASUNERAKO EUSKAL ZENTROAK 2018. URTEA AMAITU DU TOPAGUNE IZATEKO ETA ZIBERSEGURTASUNAREN GAIAN EUSKADI NAZIOARTEKO MAPAN KOKATZEKO HELBURUAN AURRERAKUNTZA GARRANTZITSUAK EGINEZ

- Zibersegurtasunerako Euskal Zentroak (BCSC) Euskadiko enpresen eta herritarren zibersegurtasun maila handitzen lagundu du.
- BCSCk antolatutako lehen ekitaldiak, Basque Cybersecurity Day-k, 1.000 parte hartzaileko kopurua gainditzea lortu zuen, Euskadiko Zibersegurtasunaren topagune eta Estatuko hiru Zibersegurtasun ekitaldi handienetako bat bihurtuz.
- Euskadiko Zibersegurtasun sektorearen ikusgarritasuna hazi egin da nazioarte mailan, BCSCk European Cyber Security Organisation-en lortutako karguengatik eta Zentroa FIRSTen sartu izanagatik, Zibersegurtasun Gertakarien aurreko Erantzun Ekipoen Zentroen mundu mailako fororik handiena hain zuzen.

Zibersegurtasunerako Euskal Zentroak (BCSC, bere ingelesezko siglen arabera) 2017ko irailean hasi zuen bere jarduera. Eusko Jaurlaritzak Euskadin zibersegurtasuna sustatzeko izendatutako erakundea da, eta bere jarduera oinarritzko hiru ardatzen inguruan antolatzen da:

- Euskal gizartean zibersegurtasunaren kultura sustatzea eta garatzea.
- Euskadin zibersegurtasunarekin zerikusia duen jarduera ekonomiko dinamizatzea, eskaintzaileen eta eskatzaileen arteko topagunea izanik.
- Euskadi erreferentzia modura kokatzea zibersegurtasunaren teknologiak industriara aplikatzeko eremuan.

Lankidetzak bertako, estatuko eta nazioarteko eragileekin

2018a urte bizia izan da, aipatutako helburuak lortzera zuzendutako ekintza ugari egin baita. Horretarako beste eragile batzuekin elkarlana garatzearen alde egin dugu apustu, bai maila lokalean, estatu mailan eta nazioartekoan. Zibermehatxu globalen eta finantzazio iturri garrantzitsuak dituzten zibergaizkile profesionalizatuen aurrean ezinbesteko estrategia da hori. Elkarlanean jardutea BCSCren ADNan bertan dago. Ekimen transbertsala gara, Eusko Jaurlaritzako lau sailek (Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak, Segurtasuna, Gobernantza

info@bcsc.eus | 945 010 059

Arabako Teknologi Parkea
Albert Einstein 46-3. – E7 eraikina
01510 Vitoria-Gasteiz



Publikoa eta Autogobernua, eta Hezkuntza) eta Tecnalía, Vicomtech, Ik4-Ikerlan eta Basque Center for Applied Mathematics teknologia zentroek osatuta.

Zibersegurtasun gertakarien aurreko beste erantzun ekipo batzuekin (CSIRT modura ezagunak, beren ingelesezko siglengatik) izandako lankidetzak handia izan da lehen egunetik bertatik. Urte honetan zehar, irailean [CSIRT.es](https://www.csirt.es)-eko kide izatera pasa ginen (nazio mailako foroa) eta, Zibersegurtasunaren Institutu Nazionalaren (INCIBE) eta Siemens-en laguntzari esker, urrian [FIRST](https://www.first.org)eko kide izatera iritsi ginen, Zibersegurtasun arloko Gertakariei Erantzuna Emateko Taldeen Zentroen mundu mailako fororik handiena.

Era horretako foroetan parte hartzea aukera paregabea da beste CSIRT batzuekin ezagutzak eta estrategiak partekatzeko. Gainera, zibersegurtasun gertakarien aurrean erantzun bateratua eta koordinatua emateko lankidetzak sustatu egiten da horrela.

Instalazio berrien inaugurazioa

Iñigo Urkullu lehendakariak uztailean inauguratu zituen [Arabako Teknologia Parkean BCSCren instalazio berriak](#). Berarekin batera izan ziren Ekonomiaren Garapena eta Azpiegituren sailburua (Arantxa Tapia), Hezkuntzakoa (Cristina Uriarte) eta Segurtasuneko (Estefania Beltran de Heredia), bai eta Administrazio eta Zerbitzu Orokorretako Sailburuordea ere (Nerea Lopez-Uribarri), Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saila ordezkatzuz.



Zibersegurtasun neurriak ezartzeko babesa

Sektore industrialak zibersegurtasunaren arloan duen heldutasun maila igotzen lagundu du Zentroak, hainbat erataria:

info@bcsc.eus | 945 010 059

Arabako Teknologia Parkea
Albert Einstein 46-3. – E7 eraikina
01510 Vitoria-Gasteiz



- **Euskadin zibersegurtasunaren arloan enpresa industrialen egoerari** buruzko [lehen ikerketa](#) bat eginez. Azterketa horrek 90 enpresaren eta 11 klusterren partaidetza izan zuen eta gure sektore industrialak zibersegurtasunaren aldeko apustu garbia egiten duela erakutsi zuen.
- **Zibersegurtasunaren arloan sentiberatze saioak** emanez, batez ere klusterrei eta enpresa elkarteei. Horren helburua da oinarrizko jarraibideak eskaintzea eta zibersegurtasunaren arloko zerbitzuak eskatzeko beharraz jabeaztea, enpresak babestuago egon daitezen eta beren lehiakortasuna mantentzeko, zibersegurtasuna balio bereizgarria baita.



- Euskadin kokatuta dauden enpresen eskura jarriz Zibersegurtasun Industrialaren Zentroak (CCI) lizentzian emandako hainbat dokumentu. Esate baterako **“Zibersegurtasun Industrialaren kudeaketa sistema bat antolatzeko arduradunarentzako ZIKS gida”** eta **“Zibersegurtasun Industrialaren Arauen Mapa”**. Dokumentu horiek doan eska daitezke lotura horietan adierazten den moduan.
- **Zibersegurtasun industrialari zuzendutako laguntzen lehen plana** abian jarriz. Horren bitartez milioi bat euroko laguntzak esleitu dira Euskadiko enpresetan zibersegurtasun neurriak ezartzeko. Diru-laguntzen deialdia SPRI Taldearen bitartez antolatu zen eta arrakasta handiz itxi da. Hori dela eta, hasierako 600.000 euroko zenbatekoa milioi bat eurora igo zen. Laguntzen lerro horri esker, [102 enpresak zibersegurtasunaren arloko neurri berriak ezarri dituzte](#). Ekimen hori 2019. urtean ere egingo da, Arantxa Tapiak, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren

Garapena eta Azpiegituren sailburuak, Basque Cybersecurity Day ekitaldian iragarri zuen moduan.

Babesa zibersegurtasunaren euskal ekosistemari

[Basque Cybersecurity Day](#)-k Euskadiko zibersegurtasunaren topagune bihurtzeko helburua lortu zuen. BCSCk antolatutako lehen ekitaldiak **1.000 parte hartzaile baino gehiago** izan zituen, eta bai eskaintzaren eta bai eskatzaileen arloetako langileak biltzea lortu zuen. Jardunaldira bertaratu zirenek azken joeren berri jakin ahal izan zuten, 8 nazionalitate ezberdinetako 25 hizlari baino gehiagoren eskutik. Zenbakiak ikusita, Basque Cybersecurity Day bere lehen edizioan estatutako hiru zibersegurtasun ekitaldi handien artean kokatu da.



Era berean, zibersegurtasunaren euskal ekosistemaren indarrari ikusgarritasuna ematearren, [Euskadiko Zibersegurtasunaren Liburu Zuriaren](#) lehen edizioa prestatu eta argitaratu da. Bertan, hazten ari den sare indartsu bat osatzen duten 100 enpresa baino gehiago, hezkuntza zentroak, instituzioak eta elkarteak ageri dira. Liburu zuria gure webgunean jarriko da bilatzaile baten modura. Horrela zibersegurtasun arloko zerbitzuen eskatzaileek Euskadin kokatuta dauden enpresen gaitasunak ikusi ahal izango dituzte, eta euren beharretara ondoen egokitzen direnak identifikatu ahal izango dituzte.

Lidergoa European

Urtearen hasieran Europako Zibersegurtasun Erakundeko (ECISO, bere ingelesezko siglengatik) partaide bihurtu ginen. Foro horretan bereziki aktiboak izan gara eta gure lanak nazioarteko gure kideen babesa jaso du, bi izendapen garrantzitsurekin.

- Lehena ekainean izan zen. Javier Dieguez, Zibersegurtasun Euskal Zentroko zuzendaria, izan zen hautatua ECISOren [Lankidetzaren Batzordean \(Partnership Board\) Europako Eskualdeen ordezkaria](#)

info@bcsc.eus | 945 010 059

Arabako Teknologia Parkea
Albert Einstein 46-3. – E7 eraikina
01510 Vitoria-Gasteiz



izateko. Batzorde hori erakunde horren eta Europako Batzordearen arteko komunikazio bidea da zibersegurtasun proiektuekin zerikusia duen lan programa eztabaidatzeko.

- Aitortzarik berriena 2018ko azken asteetan iritsi da. Dieguez bera **ECSOren 2. Lantaldeko Zuzendarikide** izendatua izan da. Lantalde horren zeregin nagusia zibersegurtasun merkatuaren, inbertsioaren eta nazioarteko lankidetzaren hedapena sustatzea da. Gure zuzendariaren izendapena aukera berri bat da Euskadin zibersegurtasunaren arloan egiten ari den lana ezagutzera emateko.

Basque Digital Innovation Hub-eko (BDIH) Zibersegurtasun Nodoa

2018. urtean zehar zibersegurtasun nodo bat sortu eta abian jarri da Basque Digital Innovation Hub-en (BDIH). **Hiru lurralde historikoetan hedatutako 5 laborategik osatzen dute, elkarren artean konektatuta.** Zibersegurtasuna gizarteko arlo guztiei eragiten dien gai transbertsala da eta 4.0 Industriaren eskutik joan behar du. Nodo horren bidez, enpresa industrialek, ETEek batez ere, normalean enpresa txikientzat eskuragarri egoten ez diren gaitasun teknologikoetara sarbidea lortuko dute. Horrela, 4.0 industriaren erronkei aurre egin ahal izango diete eta modu berdinean **ekintzailtza eta berrikuntza** sustatu ahal izango dituzte, arreta gunea bereziki jarriz era ezberdinetako proiektuetan: **smart-grid, automozioa, blockchain, eta produktuen testatzea/egiaztapena**, besteak beste.

Euskadi nazioarteko erreferentzia modura kokatzea zibersegurtasunaren arloan

15 hileko jardueraren ondoren, Zibersegurtasun Euskal Zentroak lortu du erakustea zibersegurtasuna aukera berri bat dela gure eskualdearentzat, eta dagoeneko nazioarte mailako onarpena lortua du 4.0 Industria bezalako sektoreetan. Gure enpresa sareak eta bere garapen eta espezializazio maila altuak egoera ezin hobea eskaintzen du zibersegurtasunaren arloan enpresa berriak sortzeko eta hazteko, betiere sektore publikoaren babesaz lagunduta.

2019an Zibersegurtasun Euskal Zentroaren lanak orain arte markatutako ildo beretik jarraituko du. Industriarekin lankidetzeta estua izango du kontzientziazio jardunaldien eta zibersegurtasun neurriak ezartzeko laguntzen bidez, eta beste CSIRT batzuekiko elkarlanari ere eutsiko zaio, betiere tresnarik eta ezagupenik onenak lortzeko helburuaz, Euskadi leku ziberseguru bat bilakatzearen.

Azken helburua Euskadik zibersegurtasunaren gaian duen heldutasun maila igotzea izan behar du, eta arlo honetan nazioarteko erreferentzia modura aitortua izan dadin lortzea.

info@bcsc.eus | 945 010 059

Arabako Teknologi Parkea
Albert Einstein 46-3. – E7 eraikina
01510 Vitoria-Gasteiz

